

Igel ar hiritarrak basatiak baino erakargarriagoak dira emeentzat

Ingurune hiritarretan bizi diren tungara igel arrak basoetan bizi direnak baino erakargarriagoak dira emeentzat, korroka konplexuagoak dituztelako. [Nature Ecology & Evolution](#) aldizkarian eman dute horren berri.



ARG.: Brian Gratwicke / CC-BY.


Ikertzaileek Panamako Kanalaren inguruko igel basatien eta hiritarren korrokkak grabatu zituzten. Iku-si zuten hiritarrenak konplexuagoak zirela eta maizago egiten zutela. Neurri batean, desberdintasun hori hirian zarata gehiago eta harrapari gutxiago dituztelako izan litekeela uste dute. Grabatutako korrokkak emeei jarri zizkieten, eta ikusi zuten haiei erakargarriago zaizkiela hiritarren korrokkak. ●



Korrokkak entzuteko

Migrainak sortzeko mekanismoa identifikatu dute

Frantziako Zientzia Ikerketarako Zentzoko ikertzaileek migrainak sortzearen arrazoietakoa bat aurkitu dute: proteina baten mutazioan dago gakoa. Neuronen jarduera elektrikoa inhibitzeko gaitasuna du berez proteinak, baina, mutazioz, gaitasuna galdu eta, ondorioz, hiperestimulazioa sortzen da neurona sentsorioletan.



Munduko populazioaren % 15ek pairatzen ditu migrainak. ARG.: Photolia.

Neuronen jarduera elektrikoa korrante ionikoa sortzen duten kanalen bidez kontrolatzen da, eta ioi-kanal horietako bat osatu ohi du ikertutako proteinak. Mutazioa dutenen kasuan, ordea, erdibitu eta bi proteina disfuntzional sortzen ditu. Haietako bat beste ioi-kanal bati lotzen zaiola ikusi dute, eta hori omen da funtzionamendu okerra gertatu eta neuronen aktibitate elektrikoaren hiperestimulazioa sortzearen arrazoiak. Hala argitaratu dute *Neuron* aldizkarian.

Ikertzaileek jada bazekiten migrainek izaera hereditarioa izan dezaketela, baina ez zekiten zein mekanismo dagoen horren atzean. Hortaz, tratamendu eraginkorrik ere ez dago. Zientzialarien ustez, kanal ioniko horiek erregulatzeak neuronen aktibitate elektrikoa murriztera bideratutako botikak garatzeko bidea ireki dezake. ●